

Esp. Zkia. OZ-2025-025
E.E.-2025-00088

080/2025 DEKRETU ZENBAKIA:

Larrabetzuko udaletxean, 2025ko zezeilaren 26an.

OINARRIA: 2017eko irailaren 22an, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan Larrabetzuko alde zaharretik kanpo termiten izurritea ekiditeko egindako jarduerak diruz-laguntzeko Zuzentarauak onartzen dituen Ordenantzaren behin betiko onarpena.

OINARRIA: Behin betiko izaerarekin onartutako 2025ko ekitaldi ekonomikorako udal aurrekontuaren 150.48000 zenbakiko aurrekontu-partidea dago, 500,00 euroko zenbatekoagaz laguntza-programa horretarako.

Erantsitako dokumentazinoa aztertuta, eta Diru-laguntzei buruzko zemendiaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikuluan eta putzu septikoen garbiketarako diru-laguntza programea arautzen dauan ordenantzearen 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, **HAU EBATZI DOT:**

LEHENENGOA.- Larrabetzuko alde zaharretik kanpo termiten izurritea ekiditeko egindako jarduerak diruz-laguntzeko 2024ko deialdia onartzea, aurrekontuaren 150.48000 aurrekontu-partidan ezarritakoaren arabera, 500,00 euroko kredituagaz. Deialdia Dekretu honetan l eranskin bezala agertzen da.

BIGARRENA.- Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalerriaren web-orrialdean argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Osoko Bilkureak egingo dauan hurrengo bileran ebazpen honen barri emongo da.

Amaia Lekue Mezo
Alkateordea

Nire aurrean,
Idazkaria

I eranskina**Anexo I**

Larrabetzuko udalerriko etxebizitza eta eraikinetan termiten aurkako tratamendua finantzatzeko diru-laguntzarako deialdia.

Convocatoria de las subvenciones para el tratamiento contra termitas en los edificios y viviendas del municipio de Larrabetzu.

1.- Diru-laguntzaren xedea.-**1.- Objeto de la subvención.-**

1.- Ordenantza honen xedea hurrengoa da: Larrabetzuko udalerrian Alde Zaharreko inguruko eremutik kanpo dauden etxebizitza eta eraikin ezberdinetan egiten diren termiten aurkako tratamenduaren finantzazioan diruz laguntzea.

1.- El objeto de la presente ordenanza es subvencionar la financiación del tratamiento contra termitas llevado a cabo en diversos edificios y viviendas fuera del entorno del Casco Viejo del municipio de Larrabetzu.

2.- Esan bezala, tratamendua finantzatuko da alde zaharraren ingurutik kanpo dauden etxebizitza eta eraikinetan, honi erantsita doan planoan agertzen diren etxebizitza eta eraikinetan beraz ez da tratamendua finantzatuko (erantsi planoan).

2.- Tal y como se ha mencionado, el tratamiento será financiado cuando los edificios y viviendas afectados estén situados fuera del ámbito del Casco Viejo; por lo tanto, no se financiará el tratamiento en los edificios y viviendas que se muestran en el plano adjunto a la presente ordenanza (adjuntar plano).

3.- Alde Zaharreko eremutik kanpo dauden etxebizitza eta eraikinetan egiten den tratamenduaren %40a finantzatuko da eta inoiz ez 500 euro baino gehiago

3.- Se financiará el 40% del tratamiento realizado en edificios y viviendas situadas fuera del ámbito del Casco Viejo, en una cuantía no superior a los 500 euros.

2.- Onuradunak.-**2.- Personas beneficiarias.-**

Diru-laguntza honen onuradunak izango dira Diru-Laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 11 artikuluko betekizunez gain, termiten aurkako tratamendua egiten dituzten etxebizitzaren edo eraikinaren titularrak edota erabiltzaileak. Diru-laguntza jasotzeko hurrengo betekizunak eman behar dira:

Se beneficiarán de las presentes subvenciones aquellas personas que además de cumplir las condiciones establecidas en el artículo 11 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones sean titulares o usuarias de los edificios o viviendas objeto del tratamiento. Para poder recibir la subvención, será necesario cumplir las siguientes condiciones:

- Etxebizitzaren titularra edo erabiltzailea izatea.
- Tratamendua eginda egotea deialdia argitaratu baino 3 urte lehen/deialdia egin eta aurreko ekitaldi ekonomikoan.
- Etxebizitza edo eraikina udal antolamenduarekin bat etortzea.
- Ser titular o usuario de la vivienda.
- Haber realizado el tratamiento 3 años antes de la publicación de la convocatoria o en el ejercicio económico anterior a la convocatoria.
- Que el edificio o la vivienda cumpla la ordenación municipal.

3.- Diruz-lagunduko den gastua.-

- 1.- Alde zaharreko eremutik kanpo dauden etxebizitza eta eraikinetan egiten den tratamenduaren %40a finantzatu egingo da eta inoiz 500,00 euro baino gehiago.
- 2.- Gastua finantzatzeko aurrekontu partidaren zenbatekoa deialdian zehaztu egingo da eta deialdian zehaztutako aurrekontu partidaren kreditu nahi ez badago, kreditua modu proportzionalen banatu egingo da.
- 3.- Inolaz ere ez da gaindituko diru-laguntzarako aurrekontua dagoen kreditua baino gehiago.

4.- Diru-laguntzaren aurrekontua.-

Deialdi honen oinarria den diru-laguntza emateko Larrabetzuko Udalak 500,00 euroko aurrekontua dauka 150.48000 aurrekontu partidaren kontra joango dena, 2025eko ekitaldi ekonomikorako Udal Aurrekontu Orokorriari jarraituz.

3.- Gasto que será subvencionado.-

- 1.- Se financiará el 40 % del tratamiento realizado en edificios y viviendas situadas fuera del ámbito del Casco Viejo, en una cuantía no superior a los 500,00 euros.
- 2.- En la convocatoria se deberá concretar la cuantía de la partida presupuestaria destinada a la financiación del gasto. En caso de que no hubiera crédito suficiente en dicha partida, el crédito será repartido de manera proporcional.
- 3.- En ningún caso se superará el crédito presupuestario destinado a la subvención.

4.- Presupuesto de la subvención.-

Para la concesión de la Ayuda recogida el Ayuntamiento de Larrabetzu incorpora al presupuesto municipal para el ejercicio 2024 la partida presupuestaria número 150.48000 con un presupuesto de 500,00 euros.

5.- Eskaria.-

Eskabidea (I ERANSKINA), udaleko alkate udalburuari zuzenduta, udalaren sarrera Udal erregistroan aurkeztuko da, edo Administrazio Prozedura Erkidearen araubide juridikoari buruzko urriaren 1eko 39/2015, Legearen 16 eta 66. artikuluetan ezarritako bideetako edozeinetatik. Interesdunek eskaria aurkezteko hilabete bateko epea izango dute, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Modu elektronikoa aurkeztekotan hurrengo egoitza elektronikoa:

<http://www.larrabetzu.eus/eu-ES/Izapideak/Orrialdeak/default.aspx>.

Eskariarekin batera interesdunek hurrengo dokumentazioa ekarri behar izango dute:

- Eskaria aurkezten duenaren NANaren kopia.
- Pertsona juridikoa izanez gero edota beste pertsona baten izenean aurkeztu nahi izanez gero, ordezkaritza akreditatzen duen ahalordearen kopia.
- Etxebizitzaren edo eraikinaren termiten tratamenduaren faktura.
- Etxebizitza edo eraikina termitetatik kanpo dagoenaren teknikari baten ziurtagiria.

5.- Solicitud.-

La solicitud (ANEXO I), dirigida al Alcalde-Presidente del Ayuntamiento, se presentará en el Registro General de Entradas, o en alguno de los modos señalados en los artículos 16 y 66 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común. Los interesados podrán presentar la solicitud en el plazo de un mes desde la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia. La presentación podrá hacerse mediante sede electrónica en:

<http://www.larrabetzu.eus/eu-ES/Izapideak/Orrialdeak/default.aspx>

Los interesados deberán presentar la siguiente documentación junto a la solicitud:

- Fotocopia del DNI de la persona solicitante.
- Si se trata de una persona jurídica o se pretende presentar la solicitud en nombre de otra persona, copia del apoderamiento que acredita la representación.
- Factura del tratamiento de termitas ejecutado en el edificio o la vivienda.
- Certificado emitido por un técnico acreditativo de que el edificio o vivienda está libre de termitas.

6.- Eskaria egiteko epea.-

Eskaria aurkezteko hilabeteko epea egongo da deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera.

7.- Instrukzio organoa.-

Larrabetzuko Udaleko Hirigintza eta Herri lanak Batzorde Informatiboa. Instrukzioan zehar udaletxeak aholkularitza emateko aukera zabalduko die interesdunei.

8.- Ebazpen organoa.-

Larrabetzuko Alkatea.

9.- Diru-laguntzaren kudeaketa.-

Diru-laguntzea deialdia argitaratzen dan ekitaldiaren aurrekorako eskatuko da, egingo diran gastuen aurreikuspena prestatuta.

Interesdunek diru-laguntzea eskatu ostean, Larrabetzuko Udalak egiaztatu dau interesdunek behar bezala ordaindu dabezala aurkezturiko ordainagiriak, eta zergen eta diruz laguntzen diran tasen erakunde kudeatzaileek dokumentazio hori bialduko dabe. Alderdi horreen ganeko justifikazio txostena egingo da.

Interesdunek egindako ordainketak egiaztatu eta gero, Larrabetzuko Udalak diru-laguntzearen % 100 ordainduko dau

10.- Diru-laguntzaren arauketa.-

Deialdian araututa ez dagoena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2017ko irailaren 22an

6.- Plazo de presentación de solicitudes.-

El plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la publicación de la solicitud en el Boletín Oficial de Bizkaia.

7.- Órgano de Instrucción.-

Comisión Informativa de Urbanismo y Obras Públicas del Ayuntamiento de Larrabetzu. Durante la instrucción el Ayuntamiento podrá asesorar a los interesados.

8.- Órgano para la Resolución.-

El Alcalde del Ayuntamiento de Larrabetzu.

9.- Gestión de la Subvención.-

La subvención se otorgará para el ejercicio anterior al de la convocatoria, habiéndose preparado la previsión del gasto a realizar.

Tras la solicitud de la subvención por los interesados, el Ayuntamiento de Larrabetzu verificará si las facturas han sido abonadas correctamente y las entidades gestoras facilitarán al Ayuntamiento dicha documentación. Sobre ese extremo se hará el informe correspondiente.

Tras la verificación y comprobación del gasto realizado por los interesados, el Ayuntamiento de Larrabetzu abonará el 100% de la subvención.

10.- Régimen de la Subvención.-

En lo no recogido en la presente convocatoria se estará a lo dispuesto en las

argitaratutako zuzentarauetan oinarrituko da. Horrez gain, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legea eta hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua adierazten dutena aplikatu egingo da.

bases reguladoras publicadas en el Boletín Oficial de Bizkaia de 22 de septiembre de 2017. Además serán de aplicación la Ley 38/2003 General de Subvenciones y el Real Decreto 887/2006 que la desarrolla.

I ERANSKINA / ANEXO I

DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA: TERMITEN TRATAMENDUA

 ERREGISTRO ZKIA:
 DATA:

ESKATZAILEA / SOLICITANTE

Izen-deiturak / Nombre y apellidos			NAN / DNI		
Helbidea / Domicilio			Herria / Municipio		
Posta kodea / C.P	Probintzia/Provincia	e-posta / e-mail		Telefono zk./Nº teléfono	
Noren izenean / En representación de				IFK / NIF – NAN / DNI	
Helbidea / Domicilio			Herria / Municipio		
Posta kodea/ C.P	Probintzia/ Provincia	e-posta / e-mail		Telefono zk./Nº teléfono	

ESKAERA/PETICIÓN:

ERANSTEN DIREN AGIRIAK/

DOCUMENTOS QUE SE ADJUNTAN

	NAN FOTOKOPIA/ Fotocopia DNI
	PUTZU SEPTIKOAK/ Pozos sépticos
	Etxebizitzaren titulartasunaren edo erabiltazile izaeraren egiaztapena / Acreditación de la titularidad de la vivienda o condición de usuario de la misma.
	Garbiketaren faktura/ Factura de la limpieza
	Putzu septikoa egoera onean dagoen erantzikizunpeko adierazpena/ Declaración de que el pozo septico esta en buenas Condiciones
	TERMITAK/ Termitas -- TXIMINIAK/ Chimeneas
	FAKTURA/ Factura

KONTU KORRONTEA/ NÚMERO DE CUENTA:

E	S																		
---	---	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

DATA / FECHA

SINADURA / FIRMA

DATUEN BABESA: Eskabide-orri honetan agertzen diren datuak interesdunaren baimenarekin jasoko dira, tratamendu automatizatua izango dute eta Larrabetzuko Udalaren fitxategi egokian sartuko dira. Datu horiek udal kudeaketarako baino ez dira erabiliko, baina beste herri administrazio batzuei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie, Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan iurrezarritako kasuetan. Interesdunak nahi badu, datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezeztatzeko eskubidea erabili ahal izango du aipatutako Legean ezarritako moduan.

PROTECCIÓN DE DATOS: Los datos recogidos en la presente instancia/solicitud son recogidos con el consentimiento de la persona afectada y serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados al correspondiente fichero propiedad del Ayuntamiento de Larrabetzu. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de datos de carácter personal. Si lo desea, podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación y cancelación en los términos previstos en la mencionada Ley.